

KONTROL MOZIOA

Altzako harria parkeko estalpearekin Udal Gobernuak erakutsi duen kudeaketa eskasari buruzkoa,

Zigor Etxeburua Urbizuk, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2020ko urtarrilaren 22an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Altzako Harria (Arriaga) parkean estalpea 2018an bukatu zuen Udalak, urtebeteko atzerapena izan ondoren. Aurretik eta geroztik ere, hainbat arazo sortu dira egitura berri horren inguruan.

2016ko urrian, Udal Gobernuak prentsaren bidez ezagutarazi zuen Harria parkean gune estali hori jartzeko lanak egingo zituela eta 2017ko martxorako eginda egongo zela. Hasieratik bertatik, ordea, ez zen bete Udal Gobernuak iragarritakoa, kontratazio espedientea eta pleguak ez baitziren onartu 2017ko apirilaren 25era arte.

Lanen esleipena LURGOIEN S.A.U. enpresari egin zitzaion, eta lau hilabeteko epea jarri zen lanak bukatzeko. Esleipena egin eta bost hilabete geroago, ordea, Harria parkeko gune estalia egin gabe zegoen. Bizilagunen arabera, obrak 2017ko irailean hasi ziren, baina bat-batean eten egin ziren. Hirigintzako zinegotzi ordezkariak prentsari egindako adierazpenetan esan zuenez, obrak egiten ari ziren bitartean oztupoak aurkitu zituzten, eta haiek aztertzeko, hiru asteko etenaldia beharko zuten.

2018ko otsailean Udaltzaren mozioa onartu zuen eskatzeko Udal Gobernuari Harria parkeko gune estaliaren obraren kronograma zehatza aurkezteko auzotarrei, eta epeak betetzen ez baziren, azalpenak emateko auzotarrei eta Udaltzari. Lanak amaitzeko epe berria ezarri zuen Udal Gobernuak, 2018ko martxoaren 19a, baina hura ere ez zen bete, eta azken epea 2018ko maiatzaren 25a izango zela iragarri zuen zinegotziak; bada, epe hori ere ez zen bete. Tarte horretan, Udal Gobernuak ez zuen bilerarik egin ez auzotarrekin ezta udal taldeekin ere. Azkenik, 2018ko udan amaitu zituzten lanak.

Behingoagatik, lanak amaituta eta auzotarrek baliatzeko moduan zeuden, baina 2019ko martxoan, estalpearen azpian jarritako egitura desegin egin zuen Udal Gobernuak. Auzoko eragileekin adostu gabe jarri zuenez, antza, auzoko inauteri konpartsei traba egiten zien. Geroago, zorua behin-behinean porlanez estalita eduki ostean, tartana jarri zen, txingotan aritzeko jolas baten irudiaz hornituta.

Gorabehera horiek guztiak aski ez eta, 2019 urtearen hondarrean, beste ezusteko bat izan zuten auzotarrek, ikusi baitzuten estalpeak biltzen duen euri-ura zuzenean zorura erortzen dela, ur-

